

II**BATERE ASARRERIK GABE, AGUR, KINTANA, AGUR
BESTE BAT ARTE**

"Naparroa'ko Egunkaria"ren orri ontan agertu nuen, Xabier, zeinen ederki erantzun ziozun zuk, "C"ren ordezk "K" erabiltzen dugulako, ttontto utsak gerala esan zuen Amando de Miguel gizartiztilariari.

Esan zenuen gauza eder geiagorik ere zure idaziantxo artan. Adibidez, nola betirako gure ortografiatik "V" a kendu genuen, emen sekulan "V" rik agoskatu ez delako. Izkuntzarentzat oztopo dan guzia kendu egin bear bait da. Gaztelerak ere, aide batetik "B" ta "V"ren arteko, eta, bestetik, "C", "Z", "K", "Q" izkien arteko nasketa garbituko ba'lu ez lioke izkuntzari baterere kalterik egingo. Mintza bitez ikastetxeetako gazteak!

Kemenik askiko gizon bat falta izen zaio Gaztelerari. Euskaldunok, "C"ren ordezk "K" erabiltzea bezala, "V"ren ordezk beti "B" erabiltzea ere Arana Goiri ta Azkue'ri zor diegu. Ederki esan zenuen baitare, Xabier, gaztelerak oraindik askatu ez duen "J" ta "G"ren arteko korapilloa, Euskerak txukun askaturik daukela. Bai Xabier: ori ere, Arana'ri ta Azkue'ri eskerrak. Gizaundi bi aiek, naiz, maiz politikan bat egiñ ez, Euskeraren aldeko ekintzetan errez etortzen bait ziren batera.

Bañan, Xabier, ez zenuen "H"ari buruz deus esan. soilki, Iparraldekoentzat bakarrik ontzat artu zuela Arana'k "H" a. Azkue'k ere bai, Xabier. Eta guk eta Euskerazaintzak ere bai. Gu ez bait gera iñor aien Euskera "konpondu" naiean asteko. ezta Euskaltzaindia edo Euskerazaintza ere. Ango Euskera

angoena da, ta naikoak dira beraiek ango beren Euskera moldatzeko. Ango Euskeran, gaiñera, agoskatu egiten da "H" a, Laburdieran izen ezik.

Emengo Euskera, ohea, gurea da, eta emengo Euskerak ¡"H" rik ez du!!! Orregatik, barkatu bezaidate "Naparroa'ko Egunkaria"ren orri ontan nerekin lan egiten dutenek, baiñan iñori deus erakusteko asmorik gabe, apalki esan nai diet ematen ditela neri, Orri ontan "H" z idatzitako lanak ikusteak. Nere uste txiroz, Orri ontan guk egin bear duguna, Naparroa'ko Euskera, ots, "Lingua Navarrorum" zarra salbatzea bait da. Ta Naparroa'ko Euskerak ez du sekulan "H" rik izen. Ta den bezalakoa da berriz guk etorkizunerako salbatu bear dugun Naparroa'ko Euskera: "H" rik gabea.

Euskaltzaindiak badu "elbatua" gobernatzeko eskubidea. Berak sortua bait da "elbatua" ori. Iparraldeko Euskera ez da Euskaltzaindiak sortua. Naparroa'ko Euskera ez da Euskaltzaindiak sortua. Ango erriak sortu zuen ango euskera eta ango erritarrena da. Utzi bezaie bá angoei ango Euskera gobernatzen. Utzi bezaigu guri Naparroa'ko au den bezalakoa sabaltzen.

LATIEGI'tar BIXENE